



ONDARROAKO UDALA

4.-2014. Urteko Lanpostu Zerrenda eta Plantilla Nominala onartzea

AURREKARIAK

2014ko martxoaren 21an Langile Batzordeak onartutako akordioak ikusita, hurrengoak jakinarazten da:

Toki Araubide Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4 eta 90. artikuluan, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 74. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen II Idazpuruaren I Atalburuan ezarritakoaren arabera, Udalaren antolaketa lanpostu zerrendaren bidez egituratu behar da, dauden lanpostuen izenak, klasifikazio taldeak hornitzeko erak eta ordainsari osagarriak agertuz baita dagozkien dedikazioa, lanpostuak betetzeko eskatutako baldintzak eta horien artean, hizkuntza eskakizunak ere.

Lanpostu-zerrenda onartzea Udalbatza osoari dagokio, Toki Araubide Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.i artikuluan xedatutakoaren arabera,

Azaldutako aurrekariak aintzat harturik hurrengo hau luzatzen da:

Lehena.- 2014. Ekitaldiko Udal Lanpostu Zerrenda eta Plantilla onartzea, eranskinean jasotzen dena.

Bigarrena.- Hartutako akordioa hauei guztiei jakinaraztea: Enpresa Komiteari, Atal Sindikalei eta Udalean akreditazioa duten sindikatu guztiei.